



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2009-04-21

VII.URTEA 1.681.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Eusko Jaurlaritzak eta Udalak eskola berritzeko hitzarmena sinatu dute

ASTEASU Haur Eskola eta Haur Hezkuntzarako eraikin berria egin eta Lehen Hezkuntzaren eraikina berrituko dute

FINANTZIAZIOA Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailak 1,4 milioi euro jarri ditu eta Udalak 800.000 euro 4



Rosa Saralegi, Iñaki Amenabar, Tontxu Campos eta Irene Olazabal hitzarmena sinatzen, atzo. I. GARCIA

Kalte material handiak eragin ditu Arrameleko elizan izandako suteak

TOLOSA Igande goizaldean gertatu zen; eliza osoa zaharberritzea erabaki du Udalak 3



Koruaren zonaldean izan du eragin gehien suteak. I.T.

Herriko jaietan murgilduko dira orexarrak apirilaren 30etik maiatzaren 3ra bitarte 6



bidali opor hauetako argazkiak!



1. Saria



Aldori landetxean 2 pertsonentzako astebururako egonaldia



2. Saria

Larrea

Larrea jatetxean bi pertsonentzako otordua

3. Saria

Gorrotxategiren saski berezia: Txokolatezko txapela, xaxu kaxa, teilak eta zigarrorotxoak, gurinezko pastak eta Txakolinezko bonboiak

ARGAZKIAK NORA BIDALI

◦ **P. elektronikoa:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
◦ **Postaz:** Argazki lehiaketa, Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza, Araba etorbidea 5 behe, atzea 20400 TOLOSA
Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZAren egoitzetara ekarri

Parte-hartzaile eta boto emileen artean HITZAko materiala zozketatuko dugu!

Garaipenaren ostean, Bidebide Ibizak maila mantentzeko aukera badu

Saskibaloia » Suelbat La Peña taldearen aurka jokatu zuten larunbatean, eta 72-69ko emaitzarekin irabazi zuten partida.

ERREDAKZIOA

Maila mantentzea gero eta gertuago dute Bidebide Ibizak taldekoak Suelbat La Peñari 72-69ko emaitzarekin irabazi ondoren.

Partida erabakiorra zen zalatzarik gabe Usabal kiroldegian larunbatean jokatuakoa. Bai talde batek zein besteak garaipena beharrezkoa zuen maila mantentzeko. En-

trenamendu karga gutxiko Aste Santua izan ondoren giroa lasaia zen jokalarien artean.

Partida honetarako ere taldeak baja garrantzitsuak izan zituen. Kaiet, Kike, Joseba eta Martiak ezin izan zuten arrazoiz ezberdinak zirela eta norgehiagokan parte hartu. Taldeak ezinbestekoak bihurtzen ari diren 4 juniorren laguntzarekin garaipena lortu nahi zuen.

Lehendabiziko laurdena urdin kolorekoa izan zen. Taldeak gogor ekin zion partidari, kanpotarren joko lasaiaren aurka azkar jokatzearen apustua ezin hobeto atera zen. 19-15 adierazten zuen marka-

gailuak lehen laurdenaren amaieran.

Bigarren laurdenean taldeak aspaldian izan dituen minuturik hoberenak izan ziren. Lau juniorrak kantxan zirela taldeak bere abantaila handiena lortu zuen (32-18, 16. minutuan) baina bilbotarrak ez ziren arratsalde pasa etorri eta Zalduendo jokalariren eskutik abantaila murriztea lortu zuten. Hala, 35-30eko emaitzarekin eman zioten hasiera bigarren zatia.

Atsedendialdiaren ondoren Ion eta Lakunen lan izugarriak talde partidari mantentzeko zuten. Abantailak bere horretan jarraitzen zuten denbora pasatzen zen bitar-

tean (55-51 hirugarren laurdenean amaieran).

Azken laurdena oso bizia izan zen eta tentsio handikoa. 10 tantoz aurretik jarri ondoren, La Peñak 2-3 zonakako defentsan jarri ziren eta abantaila murriztea lortu zuten 30 segundo faltan, 69ko berdinketa lortu arte. Orduan Goarrek 14,4 segundo falta zirela hiru-ko bat saskiratu zuen. Taldeak azken defentsa izugarria egin ondoren garaipena lortu zuen.

Hurrengo jardunaldian garaipen erabakiorra lortzeko asmatan etxetik kanpo jokatu dute. Garaipenak maila mantentzea ziurtatu luke.

Gaur, ingurumenaren historiari mintzatuko dira Naturaldian



Hedabideen eraginaz eta erantzukizunaz mintzatu ziren atzo iluntzean eskainitako saioan. E. EZEIZA

Ingurumena » Xabier Garmendia izango da hizlari gaur iluntzeko saioan; 20:00etan izango da, Kultur Etxean.

ERREDAKZIOA

Hemen da berriro ere Naturaldia, ingurumenaren ezagutzeta eta maitasunaren zabalkundea helburu duen egitasmoa. Artearen bitartez hasitako jardunaldi hauei, hitzaldi-ekin emango diete jarraipena datozen egunetan.

Atzo, Xabier Pastor, Oceana erakunde-ko Europako zuzendari exekutiboak, hedabideek, ingurumen gaiei zabalkundea emateko garaian duten eraginaz eta erantzukizunaz mintzatu zen. Berarekin batera, mahaiaren inguruan izan ziren Joaquin Nieto eta Gus-

» NATURALDIA 2009

Apirilak 21, gaur
■ **Ingurumenaren historia, zatitze baten historia.** Ezkotasun baiko-rra. Xabier Garmendia, Eusko Jaurilaritzako Ingurumeneko sailburuorde ohia izango da hizlari. Aurkezle lanetan Javier Ansorena ariko da. Kultur Etxean izango da jardunaldia, 20:00etan.

Apirilak 22, bihar
■ **Femeninoaren udaberriaren.** Mabel Cañada Lakabeko komunitatearen sortzaileetari bat izango da bihar hizlaria. Itziar Eizagirrek aurkeztuko du saioa. Hau Kultur Etxean izango da, 20:00etan.

Apirilak 23, osteguna
■ **Proiektzioa: Munduaren azkeneko elkartzeak.** Bi saio izango dira Leidor antzokian. Lehendabi-

ziko, 10:15ean, eta bigarrena, 19:30ean. Arratsaldekoan, Jeronimo Lopez Geologia Zientzietako doktorea eta Josu Iztueta bidaiaria ere izango dira, solasalditxo bat egiteko.

Apirilak 24, ostirala
■ **Adimen ekologikoa.** Jose Antonio Marina irakasle eta filologoa izango da hizlari saio honetan. Aurkezle lanak, Jonan Fernandez Baketikoko zuzendariak egingo ditu. 20:00etan izango da jardunaldia, Kultur Etxean.

Apirilak 27, astelehena
■ **'Atanar Juat: La leyenda del hombre veloz'.** Mundu ezezagun batera eginiko bidaia da. Leidor zinemari izango da ikusgai 20:30ean.

tavo Jerez adituak. Azkenaldian, nabarmen aldatzen ari da ingurumeneko informazioaren komunikazioa. Gero eta zabalkunde eta tarte handiagoa ematen zaio, baina Xabier Pastorrek zalantzan jarri zuten ea nahikoa zen edo ez.

Oraindik, ingurumeneko informazioak bigarren mailako izaten jarraitzen dute. Baina bere hitzetan, «ingurumeneko arazoek behartuko gaituzte oraingo garapen sistema geldiaraztera eta politika sostengagarriagoak bilatzera».

Gaurkoan, atzera begira
Gaurkoan berriz, Xabier Garmendia izango da hizlari. Ingurumenaren historia, zatitze baten historia. Ezkotasun baiko-rra izenburupean mintzatu dute.

Ingurumena, natura bezala, kulturazko kontzeptua da. Gizakia- ren existentiaren produktu dira. Horrek ez du esan nahi giza espeziea gabe ez litzatekeela naturarik eta ekosistemarik izango.

Halakorik izango litzateke, bai. Izan ziren iraganean, eta izango dira etorkizunean, giza espeziea Lur planetan bizi nahiz ez bizi; baita Unibertsotik betiko desagertzen bada ere. Hau besterik ez da, giza-kiok gabe, gure galaxian eta inguru-koetan bizi adimentsurik izan gabe, natura eta ingurumena kontzeptuek ez luketela inolako zentzurik.

'Agua Tinta' erakusketak ere ikugai
Agua Tinta, urari buruzko umore grafikoko erakusketak ikusgai da datozen asteetan Aranburu Jauregian. Andres Rabago El Rododa da bildumaren egilea. Aguatinta erakusketako irudiek zuzenean kolpatzen dituzte kontzientziak.

Umore adimentsuaren bitartez, topiko zabalduenetatik eta zuzentasun politikotik urrun, biñetek ikusleari agertzen diote zeinen ilogikoa den natura eraldatzeko erabiltzen den irizpidea.

Arartekoaren lana gertutik ezagutzeko informazio kanpaina abian

ERREDAKZIOA

Arartekoak informazio kanpaina bat jarri du abian eta hori bulego publiko batzuetan informazio guneak jartzeari datza. Gune horiek baliabide deigarriak izango dira, kartoiz eta harriz egindako eskultura baten antzekoak, eta Arartekoaren erakundeari buruzko intereseko informazioa duten liburuxkak eta urteko aldizkariaren aleak izango ditu.

Lehenengo fasean, informazio gune horiek EAEko udal bakoitzean jarriko dira, ikus daitezkeen eta normalean jendea askotan ibiltzen den tokietan. Bigarren fasean, informazio baliabideak hiru foru aldundietako eta Eusko Jaurilaritzako bulegoetara bidaliko dituzte.

Aurten, Arartekoak bere 20. urteurrena ospatzen du eta erakundea gizarte osora hurbiltzeko nahiz burutzen dituen egitekoak gehiago ezagutzeko eta bertako bulegoetara noiz joan daitekeen jakiteko ahalegina egin nahi du.

T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.
Alegialdea. Osasun z.: 943 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.
Medikua: 943 65 23 39
Asteasu. Medikua: 943 692423
Baliarrain. Medikua: 943 889003
Berastegi-Elduain.
Medikua: 943 683361
Bidegoian. Medikua: 943 681134
Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411
Ikaztegieta. Medikua: 943 653329
Irura. Osasun zentroa: 943 690720
Leizta. Osasun z.: 948 510800
Orendain. Medikua: 943 655595
Orexa. Medikua: 943 682228
Tolosa.
Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111
San Esteban: 943 006800
Gernikako arbolak: 943 006900
Amarozko dispen: 943 672637
Asuncion klinika: 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdiak)
DYA: 943 672536
Gurutze Gorria: 943 674888
Villabona. Anbulat.: 943 006970
Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930
GARRAIOAK.
Renfe: 902 24 02 02
Donostiako autobusa: 943 361740
Tolosaldeko bus: 943 650621
Leiztaran autob. : 948 221015
Taxia: 943 670420
Taxia (Leizta): 608 873016
BESTERIK.
Ertzaintza: 943 538820
Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858
Tolargi: 943 650016
Iurramendi egoitza: 943 670325
Tolosa gasa: 943 675320
Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Arrameleko elizan piztutako suteak kalte material handiak eragin ditu

Ezbeharra » Igande goizaldean gertatu zen; organoa, hainbat eserleku eta sabaia izan dira kalte gehien jasan dutenak.

INIGO TERRADILLOS

Igande goizaldean sutea izan zen Arrameleko elizan, eta kalte material handiak sortu zituen. Elizako koroaren zonaldea izan zen kalte-tuena sutearen ondorioz. Bertan, organoa eta hainbat eserleku erre ziren.

02:00ak aldera piztu zen sutea, antza, elizako organoaren motorrean. Suhiltzaileak segituan bertaratu ziren ezbeharra gertatu zen lekura. Inguruko bizilagunei euren etxeetatik irteeko eskatu zitzaizkien, prebentzio moduan, baina berriro ere itzuli ahal izan zuten etxera, sua itzali bezain azkar.

Suteak ez zuen zauriturik utzi, baina kalte material handiak jasan zituen elizak. Organoa izan zen kaltetuena, hain justu ere, bertako motorrean piztu zelako sutea. Organoaren hainbat hodi erre egin dira, baina dirudenez, erreparatu ahal da. Duela urtebete baino gutxiago erreparatu zuten azkeneko organoa, 14.000 euro inguruko kostua izan zuelarik.

Organoaz gain, beste hainbat kalte ere eragin ditu suteak. Koruaren zonaldeko eserlekuak, esaterako erre egin dira, eta inguruan

Elizako organoaren motorrean piztu zen sua, eta ondorioz, inguruko guztia izan da kaltetua

Eliza osoa zaharbertitzea erabaki du Udalak; zaila izango da San Joan jaietarako lanak amaitzea

zegoen materiala, oro har, hondaturik geratu da. Halaber, elizaren sabaia ere belztuta geratu da kaeren eraginez.

Bigarrenez, suhiltzaileak

Larunbatean, 20:00etako meza-oren ostean erre usaina hasi ziren nabaritzen elizan. Berogailuarena zela uste zuten, eta arriskurik ez zuela pentsatuta, leihoak zabaldu zituzten usaina kentzeko. 22:00ak aldera, ordea, leihoak itxi egin zituzten, eta guztia normaltasunez zegoenaren ustetan horrela utzi zuten. Handik lau ordura hasiko zen ezbeharra.

Suhiltzaileek segituan itzali ahal izan zuten sutea, baina hori bai, hainbat leiho hautsi beharra izan zituzten behar bezala lan egiteko. Hala, herenegunoa kalteak aztertzeko eguna izan zen, eta baita



Koruari piztu zen sutea, eta ondorioz, zonalde hori izan zen kaltetuena. I.T.

atzokoa ere. Baina, atzo, berriro ere suhiltzaileek joan beharra izan zuten elizara, kea hasi baitzen bertatik irteten. Antza, oraindik ere piztuta zegoen sugarren batek eragin zuen, baina segituan itzali zuten.

Ezusteko txiki honen ostean hasi ziren Udaleko langileak lanean, hau da, hondatuta eta erretagertatu den materiala kanpora ateratzeko.

San Joan jaietarako konpontzea, «zaila»

Konpontze lan hauek hainbat hila-bete iraungo dute. Jokin Bildarratz Tolosako alkateak azaldu duenez, «San Joan jaietarako konponduta egotea gustatuko litzai-guke, bertan ekitaldiak egin ahal izateko, baina zaila izango da».

Arrameleko eliza Udalarena da. Hala, konpondu egin behar dela aprobetxatuz, guztia zaharbertitzea erabaki dute. «Beharra bazuen elizak, eta une hau baliatuko dugu horretarako».



Elizaren gainerako zatiak ez zuen ia kalterik izan. I.T.

Lau musika talde ariko dira asteburu honetan Bonberenean

Musika » Ostiralean Willis drummond eta Sharon Stoner, eta larunbatean, Balerdi erdi eta Fiachras ariko dira.

ERREDAKZIOA

Oporretako atsedendialdiaren ostean, berriro ere zuzeneko musikari ekingo dio Bonberenean asteburu honetan. Hain zuzen ere, lau talde igoko dira eszenatoki gainera.

Ostiralean Willis drummond eta Sharon Stoner ariko dira, 22:30etik aurrera. Willis drummond taldea Iparraldetik dator beraien diska berria aurkeztera, *Willis drummond* izenekoa. Sharon Stoner taldea, berriz, Oñatikoa da. *13 taupadak* izeneko lan berriko abestiak jojo dituzte Bonberenean.

Larunbatean, hilaren 25ean, Balerdi erdi eta Fiachras taldeak ariko dira, 22:30etik aurrera. Balerdi erdi taldea Iruñeako da. Lehen Balerdi Balerdi izena zuen taldeak, eta orain, Balerdi erdi, beraien erri-moak ezagutaraztera datoz. Fiachras izango da larunbatean ariko den bigarren taldea. Lazkao-tik datoz, eta *Fiachras* izeneko diskoa aurkeztuko dute.



Sharon Stoner taldea, 2006an. HITZA

Iragarki laburrak

OPARITAN

■ **Txakurkumeak.** Bi hilabeteko bi txakurkume oparitzen dira. Harremanetarako deitu 646 62 98 42 telefono zenbakira.

@ **Eztabaidak eta inkestak.** Sar zaitzez eskualdeko egunkariaren webgunean eta eguneko albisteez gain, beste hainbat atal izango dituzu eskura, horien artean, eztabaidak eta inkestak. Eztabaiden kasuan, esaterako, emakumeenganako indarkeriaren ingurukoan har dezakezu parte. Inkestetan, berriz, zure bozka eman dezakezu Aste Santuko oporrei buruz, hau da, non izan zaren kontaktatu dezakezu. Beraz, sar zaitzez gure webgunean, eta parte har ezazu atal desberdinetan:

www.tolosaldekohitza.info

Eskola handitu eta berritzeko akordioa sinatu dute Udalak eta Hezkuntzak

Astesu » Eraikin berria egingo da Haur Eskola eta Haur Hezkuntzarako eta Lehen Hezkuntzako eraikina berritu egingo da.

IMANOL GARCIA

Asteasuko Udalak eta Hezkuntza sailak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute Pello Errota eskola handitu eta berrikuntzak egiteko. Iñaki Amenabar Asteasuko alkateak eta Tontxu Campos Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak sinatu zuten akordioa. Ondoa zituzten Irene Olazabal eskolako zuzendaria eta Rosa Saralegi guraso elkartearen lehendakaria. Proiektuari dagokionez, eraikin berria egingo dute bertan 0-2 urteko eta Haur Hezkuntzako gelak kokatzeko. Bestalde, Lehen Hezkuntzako eraikina berritu egingo dute. Obrak amaitzerakoan ziklo guztiak elkar komunikatuta egongo dira.

Lehen Hezkuntzako eraikinean txikia gelditu dira bai jangela, bai irakasleak erabiltzen zuten gunea, bai komunak eta dutoak. «Beharrezkoa zen berrikuntza horiek egitea», zehaztu du Iñaki Amenabar Asteasuko alkateak. Obra guztiak 2,2 milioi euroko aurrekontua du. Eusko Jaurlaritzak 1,4 milioi euro jarriko ditu eta Udalak 800.000 euro inguru. Lanak udazkenean hasteko asmoa dute eta espero dute 2010 urte amaierako bukatzea.

Jaiotza-tasa handiagoa

Obra hauek guztiak egiteko arrazoia Asteasuren biztanlegoa azken urteetan handitu egin delako da. Amenabarrek adierazi zuenez, «jaiotza-tasa altua du Asteasuk. Autonomi Erkidegoan 1.000 biztanleko 9 haurreko bada, Asteasun azken hamar urteetako konstante hartuta 16 haurreko da. Hau da, batez beste, 24 haur jaio dira urtero herrian azken urte horietan».

Haur kopuru horrek ekarri du gelak handitzeko beharra. «Haur eskola txikia gelditu zaigu», azaldu du alkateak, «eta handitu egin be-



Rosa Saralegi, Iñaki Amenabar, Tontxu Campos eta Irene Olazabal, hitzarmenaren sinaketan. I. GARCIA

Aurrekontua 2,2 milioi eurokoa da: Hezkuntzak 1,4 milioi eta Udalak 800.000 euro

harra dago. Haur Hezkuntzako gelak ere berdin». Ziklo bakoitza eraikin ezberdinetan zegoen eta roietu honekin aprobetxatu dute zerbitzu guztiak eremu batean eskaintzeko eta dena elkarri lotuta izateko. «Horrek zerbitzu hobea emango die bai gurasoei eta baita gurasoei ere», zehaztu du Amenabarrek.

Eskolan izandako aldaketek dagokionez, Irene Olazabal zuzendariak azaldu zuenez, «ikasle kopurua handitzeak suposatzen du ere irakasle kopurua handitzea. Bilerarako ditugun espazioak oso mugatuak dira». Orain hamar urte hamar irakasle ziren eta egun 25 dira. «Gure klaustroak liburutegian egin behar izaten ditugu. Berritzea beharrezkoa zen». Pello Errotan eskolan 229 ikasle daude eta Haur Eskolan, 0-2 urte bitartean, 19.

Autonomi Erkidegoko jaiotza-tasa mila biztanleko 9 haurrekoa da eta Asteasun 16koa

Tontxu Camposek, bere aldetik, azaldu zuen «gauzak arrakastatsuek izateko denen elkarlana beharrezkoa dela eta lankidetzaz hitzarmena honetan ondo baino hobeto irudikatzen da. Gurasoen nahia, irakaslearen nahia eta administrazioarena bat etorri dira eta alkateak azaldu duen bezala, haurrek izango duten eskola politagoa eta erabilgarriagoa. Irakaslego ere hobeto egingo dira beraien lana egiten eta gurasoei ere txoko bat prestatuko zaie».

Obrak eta eskolaren egunerokoa, bateragarri

Lankidetzaz hitzarmena sinatuta, Udalak prestatuko du proiektua eta gero Hezkuntza saileko teknikariek baldintzak betetzen dituen ikuskatuko dute. Hortik aurrera lehiaketa zabalduko da obrak ezleitzeko.

Campos: «Proiektuan gurasoen, irakasleen eta administrazioaren nahia bat egin dute»

Proiektuak aurreikusten du babes guztiak obra guztiak eta ikastetxea banatzeko. Oraingo eraikina erabilgarria izango da eta honen berrikuntzak opor garaian egitea aurreikusten da. «Eusko Jaurlaritzatik eta Udaletik puntu hau bereziki landu egin da proiektua lanterakoan», azaldu du Camposek. «Jakina, bateragarri izan behar ziren obrak eta ikasi eta irakasteko egitekoak».

Olazabalek gaineratu zuenez, «denon artean egin ditugu bilerak obrak izan ditzaketen arriskuak kontrolpean izango ditugu. Horrek ez du kentzen arazorik ez dela izango: garabiak egongo dira, kamioiak sartu-aterako dira, aparkaleku murriztuko da...». Baina zuzendariak esan zuenez, «pasatu ditugunak pasatu ondoren, esker-tzekoa da guretzat obrak egiten hastea».

Bardeetara joango dira Sagainekoak asteburuan bizikletarekin

Astesu » Hilaren 25erako eta 26rako antolatuta dute; kiroldegian eman behar da izena eta azken eguna bihar da.

ERREDAKZIOA

Asteasuko Sagain mendiko taldekoek oraingoan bizikletarekin egingo dute ibilaldia. Asteburu honetan joango dira, hilaren 25ean eta 26ean, Bardeetara (Nafarroa). Bi egun iraungo dituen ekimena izango da, beraz.

Larunbat gaua igarotzeko Arguedas herrian dagoen Virgen del Yugo aterpean lekua hartu dute. Berrogei pertsonentzat dute erreserba egina eta Sagainetik azaldu dutenez ez dute aukerarik pertsona gehiago kartzeko. Hori dela eta, izena ematen den ordena errespetatu dute. Izena kiroldegian eman behar da eta bihar da azken eguna horretarako.

Asteburuaren kostua 45 eurokoa izango da 12 urtetik beherakoentzat eta 48 euro 12 urtetik gorakoentzat. Prezio horretan ondorengo gastuak sartzen dira: Asteasutik Bardeetarainoko bidaiak autobusean, larunbateko afora, lo egitea, igandeko gosaria eta Bardeetatik Asteasurainoko bidaiak.

Mendi taldeak azaldu dutenez, herrian banatu duten orriari 40 kilometroko ibilaldiak egingo dituztela jarri, jendea ez dela kezkatu behar, ibilbideak jendearen mailara egokitzeko asmoa baitute. Aurreko asteburuan Sagaineko bikide Bardeetan egon ziren bizikletekin, azken egunetako euriek ibideak ondo zuden ikusteko eta azken xehetasunak zehazteko. Oraindik ez dute erabaki zein ibilbide egingo dituzten, baina bai zein paraje igaroko dituzten. «Gure ustez, eta bertako aditu baten ustez ere, Bardeetako paraje ederrenak», azaldu du Sagainetik. Bestalde gogorarazi dute ibilaldi hau ez dela aproposa haur oso txikiak, sei urtetik beherakoak gutxi gorabehera, bere kabuz bizikletan joateko.

1936ko GERRAKO OROITZAPENAK
TOLOSALDEAN ETA LEITZALDEAN
ARANZADI hitza

LIBURUA SALGAI

Salmenta:

Liburuaren prezioa:
18 €

Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzako **bazkideak:**
14 €

HITZAK harpidedunentzat
2 sarrerak ditu
Akaba Bera Bera Balonmano Alcobendas
Bidebietako kiroldegia
Aprilak 26 • Igandea • 19:00
sarrerak eskuratzeko deitu:
943-65 56 95
harpidedun kodea eskura duzula

Lapurdiko eta Nafarroako hainbat txoko ezagutzeko irteera maiatzan

ERREDAKZIOA

60 urtetik gorako amezketarrentzat irteera antolatu du Amezketako Gizarte zerbitzuak, maiatzaren 3rako. Oraingoan Lapurdi eta Nafarroa pixka bat gehiago ezagutzeko aukera izango da. Guztiaren prezioa 27 eurokoa da eta izena hilaren 27an edota 28an eman behar da 09:00etatik 14:00etara bitarte, udaletxean bertan.

Irteera 08:00etan ohi bezala Ergonetik izango da, eta gero plazan eta Ugarten geratuko da autobusa handik Hendaiarantz joateko. Gero Donibane Lohitzune ezagutuko dute. Handik, Nafarroa alderajoko dute.

» ORDUAK

- **08:00.** Ergonetik autobusa aterako da.
- **10:00.** Gosaria.
- **11:00.** Senperetik Dantxarinea-ko mugatik pasa Elizondorantz.
- **14:30.** Almandozen bazkalduta.
- **17:30.** Iruñeara joan.
- **19:30.** Etxerako buelta.

Laburrak

Gaur, kultura, ongizate eta ingurumen batzordea

AMEZKETA ● Gaur, kultura, ongizate eta ingurumena batzordea bilduko da Amezketako udaletxeko aretoan. Bileran 20:30ean hasiko da eta bertan bi gai nagusi jorratuko dituzte: UEMAK osakidetzari buruz prestatutako mozioari buruz ariko dira eta ondoren, kirola bultzatzeko planaz ariko dira. Bilerak irekiak dira, edozein herritar joateko aukera izanik.

Ipuin kontaketa izango da etzi, Kultur Etxean

ABALTZISKETA ● Ipuin kontaketa izango da Abaltzisketan etzi, Liburuaren Eguna gogoratzearekin batera. 18:00etan hasiko da ekitaldia eta Kultur Etxean izango da. Ipuin kontaketa hau Galtzaundi Euskara Taldeak antolatu du eta oraingoan jarri dioten izenburua *Kontu Kontari* da. Haurrentzako izango da aproposa.

Loatzo musika eskolaren bilera Alton eta Alegian

KULTURA ● Alton, gaurko bertan Loatzo musika eskolak batzorra antolatu du. 19:30ean izango da udaletxeko areto nagusian. Bertan, guraso zein interesatuei zuzenduko dira. Alegian bihar izango da 19:00etan, Kultur Etxean.



Erretratoak ikus daitezke erakusketan. Eskuinean Ikaztegietao baserri bat: Presalde. Inguruko beste hainbat paisaia egin dituzte ahizpek. MARIVI ALKIZA

Marivi Alkiza eta Jaione Alkiza ikaztegiatarren margolanak daude ikusgai Alegiako jubilatuen tabernan, apirila osoan zehar; errealismorako joera du batek eta besteak abstrakzioarako.

Giza irudia ia lan gehienetan

NEREA URBIZU

Giza irudia da Marivi Alkizaren margolan gehienetan falta ezin den elementua. Hori baieztatzeko Alegiako jubilatuen tabernara joan behar da apirila osoan zehar. Marivi Alkizaren eta Jaione Alkizaren margolanak daude ikusgai bertan.

Marivi Alkizak errealismoa nahiago duen moduan, ahizpa gazteenak abstrakzioarako joera handiagoa dauka eta hori ere agerian gelditu da erakusketaren bidez. Marivi Alkizaren hitzetan «argazkia egin eta horren bidez marraztu eta margotzen dut. Gehienetan paisaiak dira eta gero nik pertsonaren bat gehitzen diot». Horren ohikoa ez den erretratoa ohikoa bihurtu da apirilako margolan erakusketan, gehiagotan pertsonak hurbiletik azaltzen baitira.

Marivi Alkiza duela 10 urte hasi zen margotzen ikasten. Gaur egun eguneko ordu batzuk margolanak egiteko erabiltzen ditu, eta baita ikasteko ere, izan ere, arte aplikatuak ari da ikasten Bilbon. «Asko gustatzen zaizkit ikasketa hauek eta margotzea, noski, ere bai». Eta gainera, une honetan ez du lanik etxetik kanpo egiten eta ehuneko ehunetan margotzen aritzeko aukera du.

Gasteizen bizi zenean hasi zen ikasten, batekin eta bestearekin. Donostian bizi da orain eta hainbat tekniki aritu da hemen ere. «Arruabarrenarekin ari naiz ikasten orain».

Alegiako erakusketan inguruko paisaiak ikus daitezke, hala nola, Ikaztegietao baserri bat, Aralarko ikuspegi bat edo Gazteluko ikuspegi bat. Bestela ere, Donostiako txokoren bat ere badago (Jaio-

ne Alkizarena) eta noski, aipatutako hainbat erretratu. Guztiak oleo teknikaren bidez daude eginda. «Gehiena oleoa marrazkiarekin gustatzen zait egitea».

Gaur egun, Ibiur margotzen


Margolan guztiak azken hiru urteetan egindakoak dira. Gaur egun, ikaztegiatarra Ibiur urtegia ari da irudikatzen, egungo egoeran eta ondoren, urarekin beteta egin nahi du. Maiatzan zehar beste erakusketa bat jarriko dute, kasu honetan Azpeitian.



Arratsaldeko koloreak mendian, eskuinean herrixka bat duela. M. ALKIZA



Donostiako Boulevardeko kioskoa eta eskuinean titulorik gabekoa, abstraktoagoa dena. JAIONE ALKIZA



Promozio berria -Ibarra-

Sustatzailea:
Epergain
Eraikuntzak eta Promozioak, S.L.
Eraikitzen du:
Aburuza
Eraikuntzak S.A

Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • www.aburuza.com

Herriko jaiak hilaren 30etik maiatzaren 3ra ospatuko dituzte

Orexa » Pailazoak, kantaldiak, goitibera txapelketa eta sagardo dastaketa antolatu dituzte, besteak beste.

ERREDAKZIOA

Aurtengo Orexako jaiak, santakutzak, hilaren 30ean hasi eta maiatzaren 3an bukatuko dira. Jaiak oilarren jaitsierarekin hasiko dira 21:30ean eta bere igoerarekin bukatuko dira igandean, urteroko bertsolarien saioaren ondotik. Aurtengoan Peñagarikano eta Zubeldia ariko dira bertsoetan.

Egitarau txukuna osatu dute eta urteroko moduan herri afaria izango da udaletxeko ganberan larunbatean eta baita pilota partidak ere, goitibera txapelketa eta dantzaldi ugari ere.

Aurtengoan ere DJ Bullek alaitu du du giroa larunbatean Gabezin

taldearen dantzaldiaren ondoren eta gero baratxuri zopa banatuko dute. Hau eta gero kalejira egingo dute etxez etxe herritarrei piezaxoak eskaini eta trukean jatekoa eta edatekoa jasotzeko.

Jaiak igandean, maiatzak 3, bukatuko dira 20:00etan oilarren igoerarekin.

» EGITARAUA

Hilak 30, osteguna

- **21:30.** Oilarren jaitsierak emango die hasiera aurtengo jaiari.
- **22:30.** Kantaldia izango da Bilkustik taldearen eskutik.

Maiatzak 1, ostirala

- **16:30.** Patxin eta Potxin pailazoen emanaldia haurrentzat. Ondoren, merienda banatuko dute bertaraten diren ume guztien artean.
- **19:00.** Auzoen arteko apustua egingo dute; korrikalaria eta txi-



lazo auzoen arteko apustuan trontzan eta oskoletan ibili ziren. N. URBIZU

rindularia elkarren aurka ariko dira.

- **21:00.** Sardina jatea. Ondoren, erromeria Astiazaran Anaiak eta Leirerakin.

Maiatzak 2, larunbata

- **17:30.** Orexako II Goitibera Txapelketa.
- **21:00.** Herri afaria.
- **00:00.** Dantzaldia Gabezin taldearekin. Ondoren, DJ Bullek giroa alaituko du eta bukatzerakoan bazuri zopa banatuko dute.

Maiatzak 3, igandea

- **12:00.** Diana herriko txistulariaren, ondoren hamaiketako banatuko dute.
- **17:00.** Lizartza eta Orexako pilotari gazteen partidak.
- **19:00.** Sagardo dastaketa egingo dute.
- **20:00.** Bertsolarien saioa izango da A. M. Peñagarikano eta Iker Zubeldiarekin. Bertsolarien ondotik jaiak bukatuko dira eta horretarako ohiko oilarren igoera egingo dute.

Laburrak

Festak antolatzeko bilera, gaur 20:00etan

LEABURU-TXARAMA » Txaramako herritar talde batek herriko jaiak antolatu ahal izateko bilera asteartearen egingo dituztela esan du. Jaiak maiatzaren 29 eta 30ean izango dira eta hurrengo bilera gaur bertan izango da 20:00etan. Herritar guztiak animatu nahi dituzte bileretara joatera jaiak antolatu ahal izateko.

Hautesle zerrendak hilaren 27ra arte ikusgai

IBARRA » Ibarra Udalak jakinarazi duenez, indarrean dauden hautesle zerrendak hilaren 27ra arte, egun hau barne, egingo dira ikusgai udallexean. Epe honetan hautesle zerrendan beharrezkotzat jotzen diren eskaerak aurkeztu ahal izango dira.

'Kosta bat, lau begirada' erakusketa Kultur Etxean

IBARRA » *Kosta bat, lau begirada* argazki erakusketa ireki zuten atzo, Ibarra Kultur Etxean. Hilaren 30era arte dago zabalik 10:30etik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara. Erakusketak Isabel Diez, Koldo Badillo, Raul Esteban eta Asier Castroren lanak biltzen ditu.

Euskal presoaren eskubideen aldeko sinadura bilketa

Ibarra » Sinadurak etxez etxe bilduko dituzte aste honetan zehar 19:00etatik 21:00etara; bi orri sinatu behar dira.

ERREDAKZIOA

Amnistiaren Aldeko Mugimendua Euskal Herri osoan zehar abiarazitako euskal presoaren eskubideen aldeko sinadura bilketaren harira, Ibarra etxez etxe ibiliko direla jakinarazi dute. Ostirala birtarte pasako dira etxebizitzetatik 19:00etatik 21:00etara. «Horrela

nahi duenarentzat, bi dira sinatu beharreko orriak; bata, Gasteizko legebiltzarrean mozioa sartzeko eta bestea, Ibarra Udalean sartzeko», adierazi dute.

Aldizkari orriak

Era berean, orain gutxi banatutako aldizkariarekin batera sinatzeko orriak ere zabaldu zituztela gogoratu nahi izan dute, «eskertuko genuke, pasatzen garenerako sinadurak prest izatea, gauzak azkartze aldera», eskatu dute.

Etxez etxe joaten direnek, hala ere, eramango dituzte orriak behar duenarentzat.

Bestalde, datozen asteetan herriko puntu desberdinetan jarriko dituzten mahaian ere sinatu ahal izango dela argitu dute. «Azpimarratu behar da, atxikimendua ematen zaion testuak gutxieneko aldarrikapen demokratikoak eskatzen dituela: euskal presoak Euskal Herriratzea, gaixotasun larriak dituztenak kaleratzea eta bizi osoko zigorrak ez aplikatzea», gaineratu dute. «Aldez aurretik herriko bizilagun guztiei eskerrak ematen dizkiegu beren adeitasunagarengatik eta dispertsio politika kriminalaren aurka sinatzera animatzen ditugu», esan dute.

Altuna II eta Etxabe Pacharan Baines Txapelketatik kanpo

Amezketak » Igandeko partidari 40-30 irabazi bazuten ere joaneko partidari 29-40 galdu eta kanpoan geratu dira.

ERREDAKZIOA

Amezketako Altuna II pilotariak eta Etxabek osatzen duten bikotea Pacharan Baines txapelketatik kanpo geratu dira.

Igandean jokatu zuten azken partida Iñigo-San Miguelen aurka

eta 40-30 irabazi bazuten ere joaneko partidari 29-40 galtzeagatik kanporatu dituzte.

Matxin III-Urrutia

Bestalde, Matxin III eta Urrutia lortu duten finalurrekoetarako txartela Uterga eta Etxeberria IIIri bueltako partida irabazita.

Horiek horrela, finalurrekoetan pilotari hauek jokatu dute: Lekunberri-San Miguel Urrizabadiolaren kontra eta Elduaingo Zeberio II eta Ion Matxin III-Urrutiaren kontra.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Jose txo Urrutiak marka pertsonal berria ezarri du

Leitza » Harri-jasotzaileak 163 kiloko zilindro zaharra altxa zuen sei jasoalditan; marka homologatu dute, kontrola ere egin baitzioten.

ERREDAKZIOA

Jose txo Urrutiak marka pertsonal berria lortu zuen herenegun, Hendaiako harri-jasotze jaialdian. Beltzenia pilotalekuan bilduriko lapurtarrak izan ziren leitzararen markaren lekuko. Hain zuzen ere, Urrutia harri-jasotzaileak sei jasoaldi egin zituen 163 kiloko zilindro zaharrarekin.

Leitzako harri-jasotzaileak 74 kilo pisatu zituen marka ahaleginaren aurretik, eta horrenbestez, bere pisua bi aldiz eta arropa bat gehiago bizkarreratzea lortu zuen.

Berez 163 kiloko zilindro zaharra zuen jasotzeko, baina badaezpada, zama handixeagoa jarri zioten ez zelako heltzen arauzko pisura, eta 163, 800 kilo pisatu zituen probaren aurretik eginiko pisaketan.

Ostolaza laguntzaile

Bost minutuko txanda egin zuen, eta ongi neurtuak izan zituen, alboan Joseba Ostolazaren zuelako laguntzen.

Urrutiak 31 urte ditu eta heldu



Bost minutu behar izan zituen Urrutiak; Ostolaza izan zuen laguntzaile. HITZA

den ekainaren 7an beteko ditu 32 urte. Orain dela zortzi urte hasi zen harri-jasotzen. Igandekoa marka pertsonala izan zen, eta homologatua, dopin kontrola egin baitzioten.

140 kilokoarekin beroketa

Lehenik beste zilindro zahar batekin egin zuen beroketa, lau heldu leku zituena, eta 140 kilo; hiru jasoaldi egin zituen honekin. Ondoren, marka egiteko harriari heldu zion leitzarrak.

» JASOALDIAK

- Lehen jasoaldia. 00:11.
- Bigarren jasoaldia. 01:00.
- Hirugarren jasoaldia. 02:02.
- Laugarren jasoaldia. 02:55.
- Bosgarren jasoaldia. 03:55.
- Seigarren jasoaldia. 04:50.



Euskadikoan, TAKeko neska jubenilek lortu zuten lehen postua. HITZA

Euskadikoan emaitza bikainak TAKentzat

ERREDAKZIOA

Pasa den asteburuan Portugaleteko uretan jokatu zuten Tolosako Arraun Klukoak (TAK) Euskadiko Batel Txapelketa. Nesketan, etorkizunekoak, jubenilen eta seniorren mailan aritu ziren arraunlariak eta oso maila ona erakutsi zuten. Hain zuzen ere, jubenil eta

senior mailako neskek errearekin bueltatu ziren etxera.

Mutiletan, berriz, infantilen, kadeteen, jubenilen eta seniorren mailan aritu ziren TAKekoak. Jubenilak podiumaren lehen postura igo ziren. Jardunaldi biribila izan zen, beraz, eta hiru urte lortu zituzten eskualdekoak.

Laburrak

Herriko festen inguruko bilera irekia izango da gaur

ANOETA » Festa batzordeak bilera deitu du gaurko, 18:30ean, udal-etxean. Bertan heldu den ekainaren 5ean hasiko diren Korpus jaien antolakuntzaren azken ukituak emango dituzte. Bilera irekia izango da eta herritar guztiei azaltzeko deialdia egin diete.

Gironara irteera antolatu du Harizpek

TOLOSA » Harizpe jubilatua eta pentsiadunen elkarteak Gironara irteera antolatu du, ekainaren 1etik 15era bitarte. Bazkideek 391 euro ordaindu beharko dute eta ez bazkideek, berriz, 397 euro. Informazio gehiago edota izena eman nahi duenak elkartera jo dezake.

Saskibalo teknifikaziorako jardunaldia, igandean

ANOETA » Datorren hilaren 26an, igandearrekin, saskibalo teknifikaziorako jardunaldia antolatu du Tolosako Adiskideok Kirol Elkarteak (TAKE). 11:00etatik 12:30era izango da eta 1997 eta 1998 urteetan jaiotako neska-mutilentzat zabalik egongo da. Prestakuntza lanak bertako entrenatzaile gaituek egingo dituzte. Tolosako zentro guztietako gazteentzat zabaldu dute deialdia. Informazio gehiago www.takesb.com edo takesb@takesb.com helbidera idatzita.

'Tolosa Kantari'-koen entsegua izango da bihar


TOLOSA » Tolosa Kantari ekimena antolatzaileek entsegua egingo dute, bihar 20:00etan, Tolosako Kultur Etxean. Bertan larunbateko saioan abestuko dituzten kantuak prestatuko dituzte, Evaristo Elduaie eta bere laguntzaileen gidaritzapean. Entsegua irekia izango da eta bertara azaltzeko deialdia egin dute. Larunbatean 12:00etan abiatuko dira Tontokaletik; antolatzaileek hileko azken asteazkeneko prestakuntza saioak egiteko asmoa azaldu dute.



Pizza gozoak egiten ikasten

ARESO » Aste Santuko oporraldia aprobetxatuz pasa den asteartean Aresoko Guraso Elkarteak antolatuta pizza egiten ikasi zuten herriko haurrek Pake Toki Elkartearen, haur eta gaztetxo asko agertu ziren tailerren parte hartzerantz. Argazkian — Tartean festetarako

prestatzen hasteko Aresoko ingurutxoaren bideoa ere ikusi zuten, baita Tartalo, Makilakixki eta Patxi Errementariarenak ere. Ondoren egindako pizzarekin afari merienda egin ahal izan zuten eta dirudienez ez zeuden batera txarrak. HITZA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Altzo.** Loatzo musika eskolaren batzarra izango da 19:30ean udaletxean.
- **Berastegi.** Basurde Kiroi Elkarteak XVII. ibilaldi neurtua antolatu du maiatzaren 3rako, Urepel, Mandoegi, Abadegurutze, Ipuñño, San Lorentzo igoz, plazatik 7etan abiatuta. 6, 5-8 ordu. Izen-ematea abiapuntuan edo Zelai ta bernara deituz (690 140951). 5 euro.
- **Ibarra.** Maiatzaren 8an Izaskunen erromeria antolatu du Bizi Nahijubilatutako elkarteak. 09:30ean oinez abiatuko dira; 11:30ean toka gizonentzat; 12:00etan autobusa; 12:15ean toka emakumeentzat; 13:00etan meza; 14:00etan bazkaria, omenaldia, Los Rubirekin dantzaldia. Izena emateko aukera dago elkartearen.
- **Tolosa.** Oargi elkartearen hilaren 25era arte, 19:30etik 21:00etara GPS-Internet ikastaroa emango dute. Izena emateko 688 698642 telefonoan edo info@oargi.org helbide elektronikoa, 25 euroren truke.
- **Tolosa.** Galtzaundi Euskara Taldeak maiatzaren 10ean ospatuko den Herri Urratsera joateko autobusak antolatu ditu. Izen-emate Galtzaundiko egoitzan. 11 euro.

Hitzaldia

- **Tolosa.** *Ingurumenaren historia, zatitze baten historia.* Ezkertasun baikorra hitzaldia 20:00etan Kultur Etxean, Xabier Garmendia Eusko Jaurlaritzako Ingurumeneko sailburuorde ohiaren eskutik, Naturaldia jardunaldien barruan.

Erakusketa

- **Ibarra.** *Kosta bat, lau begirada* argazki erakusketa Benito Izagirre kultur etxean.
- **Tolosa.** El Roto komikilaria-*ren Agua tinta* erakusketa Aranburu Jauregian, Naturaldiaren baitan.
- **Tolosa.** Mariano Arsuaga artista tolosarraren *Kaleidoskopia+12* erakusketa Aranburu Jauregian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunkizunik.

Bazter guztietatik ari dira heltzen

ST ANDREWS ■ Etxetik kanpo eman ditu Aste Santuko egunak Oihanek eta leku eder batean gainera. Argazki hau bidali du HITZAra lehiaketan parte hartzeko. «Edimburgotik ordu eta erdira, Eskozia ekialdean eta Fife konderrian dagoen St Andrews izeneko hirian aterata dago argazki hau. Eskoziako zahar eta garrantzitsuenetarikoa izanik, zenbait txoko ditu ikusteko: hon-dartza, katedrala, gaztelua, unibertsitatea...», azaldu du bere argazkia bidaltzerakoan. OIHANEZURIARRAIN



BAIONA ■ Iparraldeko arkitektura aberasgarria dela guztion artean da jakina. Olatzi ere bereziki gustatu zitzaion eta Aste Santuko argazki hau bidali du lehiaketarako. Argazkiarekin batera hauxe kontatu digu: «Argazki hau Baionan atera nuen. Kale tartean horrelako etxe dotore eta koloretsuak daude. Benetan elegantea da hain gertu daukagun hiri hau».

OLATZ IRAZUSTABARRENA (ALEGIA)

A Agurrak



Urte askoan!

Enaut (Tolosa). Zorionak Enaut etxekoan eta batez ere ondoan duzun araba Leiren partetik!

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak
Mesedez,
ekarri
argazkia
bi egun
lehenago.